BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4712

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 29koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena. Honen bidez, ikastetxe nagusiei 2011ko ekitaldian egindako laguntza-deialdia ebazten da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2011ko ekainaren 14an emandako Aginduaren bitartez, ikastetxe nagusiei laguntzak emateko arauak eta 2011ko ekitaldian eskabideak aurkezteko deialdia onartu ziren (EHAA, 127. zk., uztailaren 5ekoa).

Deialdi horretara 103.171 euro zuzendu ziren, hori baita Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorretan Unibertsitate Irakaskuntzako 4223 Programan helburu horretarako jasotako zenbatekoa. Aurrekontu horiek, berriz, abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bidez onartu ziren.

Hori guztia dela eta, Unibertsitate Zuzendaritzak proposatuta eta kontuan hartuta laguntza horien arautegia, 2011ko deialdia egiten duen Agindu horretan jasotakoa, eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.7 artikulua, laguntzak edo diru-laguntzak emateari buruzkoa, eta orokorrean aplika daitezkeen gainerako xedapenak, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Deialdirako izendatutako kreditua banatzea.

2011ko ekainaren 14ko Aginduaren 1.2 eta 11. artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdi horretako zenbatekoa (103.171 eurokoa) honela banatzen da:

a) Ehuneko hirurogeia (61.902,60 euro), deialdian parte hartzen duten ikastetxe nagusien artean hainbanatuko da.

b) Ehuneko berrogeia (41.268,40 euro), berriz, proportzio zuzenean banatuko da ikastetxe nagusi horiek 2010-2011 ikasturtean eskainitako egoitzako plaza-kopuruaren artean.

Bigarrena.– Laguntzen onuradunak eta zenbatekoak.

Aurreko lehenengo atalean aipatzen diren irizpideak aplikatu ostean, diru-laguntza hauek ematen zaizkie ikastetxe nagusien erakunde titular hauei:

1.– Ayete Ikastetxe Nagusia, Donostia-San Sebastiángoa: hamazortzi mila ehun eta hirurogeita hamar euro eta laurogeita hamasei zentimo (18.170,96).

2.– Bidealde Ikastetxe Nagusia, Bilbokoa: hamabost mila bostehun eta bost euro eta berrogeita hamabi zentimo (15.505,52).

3.– Pedro Biteri y Arana Ikastetxe Nagusia, Arrasatekoa: hogeita bat mila laurehun eta hogeita hamahiru euro eta laurogeita hiru zentimo (21.433,83).

4.– Deustu Ikastetxe Nagusia, Bilbokoa: hogeita sei mila berrehun eta berrogeita hemeretzi euro eta hogei zentimo (26.259,20).

5.– Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia, Bilbokoa: hogeita bat mila zortziehun eta bat euro eta berrogeita zortzi zentimo (21.801,48).

XEHETASUNA

Ikastetxe Nagusia	Herria	Plazak 2010-2011	Oinarrizko finantzaketa (% 60)	Egoitza-plazak (% 40)	Guztira	Laguntza (euroak)
Ayete	Donostia-San Sebastián	126	12.380,52	5.790,44	18.170,96	18.170,96
Bidealde	Bilbao	68	12.380,52	3.125,00	15.505,52	15.505,52
Pedro Biteri y Arana	Arrasate	197	12.380,52	9.053,31	21.433,83	21.433,83
Deusto	Bilbao	302	12.380,52	13.878,68	26.259,20	26.259,20
Miguel de Unamuno	Bilbao	205	12.380,52	9.420,96	21.801,48	21.801,48
GUZTIRA		898	61.902,60	41.268,40	103.171,00	103.171,00

Hirugarrena.– Ematen diren laguntzen helburua.

1.– Deialdiaren arautegiko 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, ekintza hauek egitearren 2011n sortzen diren gastuetara zuzendu beharko dute ikastetxe nagusiek aurreko artikuluak aipatzen duen diru-laguntzaren zenbatekoa:

a) Prestakuntza jarduerak egitea.– Laguntzaren % 25 egoitza horietako ikasleen kultura– eta zientzia-prestakuntzari laguntzeko jarduerek, unibertsitateko komunitatean eragina dutenek, sortutako gastuak finantzatzeko erabiliko da.

b) Bekak ematea.– Laguntzaren % 50: ikasle-egoitzan bizi diren ikasleetatik baliabide ekonomiko gutxien dituztenei egoitzarako bekak edo laguntzak emateko 2011-2012 ikasturtean.

c) Ondasun inbentariagarriak erostea.– Laguntzaren % 25: diruz lagundutako ekintzetarako edo ikastetxe nagusiko ekipamendurako beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak erosteko.

2.– Aurreko paragrafoko idatz-zatietan jasotako portzentajeak aplikatuta, zenbateko hauek ateratzen dira:

XEHETASUNA

Ikastetxe Nagusia	Prestakuntza jarduerak (% 25)	Bekak (% 50)	Ondasun inbentariagarriak (% 25)	Laguntza guztira (euroak)
Ayete	4.542,74	9.085,48	4.542,74	18.170,96
Bidealde	3.876,38	7.7532,76	3.876,38	15.505,52
Pedro Biteri y Arana	5.358,46	10.7176,92	5.358,46	21.433,83
Deusto	6.5654,80	13.129,60	6.5654,80	26.259,20
Miguel de Unamuno	5.450,37	10.900,74	5.450,37	21.801,48
Guztira	25.792,75	51.585,50	25.792,75	103.171,00

Laugarrena.– Diru-laguntza ordaintzea.

Deialdi honetako arautegiko 14. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan igorriko dira ematen diren diru-laguntzak, eta hain zuzen ere honela:

a) Lehenengo ordainketako % 40 igorriko da diru-laguntza 2011ko ekainaren 14ko Aginduaren 14. artikuluko a) idatz-zatian onartzen denean.

b) Bigarren ordainketa % 50ekoa izango da, 2011-2012 ikasturteko egoitza-beketarako izango da eta 2011ko azaroaren 15a baino lehenago igorriko da.

c) Hirugarren ordainketa, gainerako % 10a, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa justifikatu eta gero igorriko da.

Bosgarrena.– Diru-laguntzaren helburua eta jasotako funtsen erabilera justifikatzea.

Jasotako funtsen helburua eta erabilera justifikatzeko, ikastetxe nagusi onuradunetako zuzendariek deialdi honetako arautegiko 17. artikuluan eskatzen den dokumentazioa bidali beharko dute Unibertsitate Zuzendaritzara 2012ko martxoaren 31 baino lehenago.

Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta beraren kontra gorako errekurtsoa jarri ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera, beti ere azaroaren 26ko 1992/26 Legeko 107. eta 30. artikuluetan ezarritakoaren arabera 30/1992 Legea, herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 29a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
PEDRO LUIS ARIAS ERGUETA.